

2020ko urrian Euskal AEko produktu ez energetikoen esportazioak % 7,2 jaitsi ziren

2020ko lehenengo hamar hilabeteetan Euskal AEk Erresuma Batura egin dituen esportazioak 1.1000 milioitik gorakoak izan dira, eta 701 milioi euroko saldo positiboa eman dute

Euskal AEko ondasunen **esportazioek** (2.001,3 milioi euro) % 15,3ko beherakada izan zuten 2020ko urrian, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, EUSTATEk prestatutako datuek erakusten dutenez.

Produktu energetikoen portaerak asko baldintzatu du 2020ko urriko esportazioen bilakaera; izan ere, % 89,3ko oso beherakada nabarmena izan dute. Ehuneko horrek apirilean erregistratu zen eta orain arteko handiena zen jaitsiera (-% 81,1) gainditzeko du, 2019ko urtarrilean hasitako joera negatiboaren barruan. Produktu ez-energetikoen esportazioek % 7,2 egin dute atzera.

Antzekoa izan da **inportazioen** bilakaera (1.406 milioi), % 20,0 jaitsi baitziren, produktu energetikoen (-% 61,5) eta ez-energetikoen (-% 4,8) behera egin zutelako.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2020 Urria

	ESPORTAZIOAK			IMPORTAZIOAK		
	Urria			Urria		
	2019	2020	Δ %	2019	2020	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	2.362.289	2.001.253	-15,3	1.756.822	1.406.024	-20,0
PRODUKTU ENERGETIKOAK	232.945	24.849	-89,3	469.573	180.644	-61,5
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	2.129.344	1.976.404	-7,2	1.287.249	1.225.380	-4,8
URTEKO METATUA	21.237.709	17.157.778	-19,2	16.903.721	12.920.762	-23,6
PRODUKTU ENERGETIKOAK	1.730.735	783.405	-54,7	4.545.653	2.430.137	-46,5
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	19.506.974	16.374.373	-16,1	12.358.068	10.490.625	-15,1
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	689.396	663.139	-3,8	401.076	425.620	6,1
URTEKO METATUA	6.050.400	5.118.461	-15,4	3.461.784	2.979.683	-13,9
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	910.979	693.193	-23,9	1.001.881	651.527	-35,0
URTEKO METATUA	8.082.449	6.383.069	-21,0	9.840.714	6.997.828	-28,9
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	761.914	644.922	-15,4	353.865	328.877	-7,1
URTEKO METATUA	7.104.860	5.656.248	-20,4	3.601.222	2.943.251	-18,3

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Lurralde historikoen arabera, Bizkaia da esportatzeko joera txarrena erakutsi duena, esportazioek % 23,9 egin baitute behera, aipatutako esportazio energetikoen behera egin dutelako (-208,5 milioi, % 89,7ko beherakadarekin). Energiaren arloko esportazioek jasan duten atzerakada hori, "Naftalenoa", "Olio lubrifikatzaileak", "Petrolio-betuna", "Berunik gabeko gasolinak" eta "Olio gordinak" produktuetan kontzentratzen da batez ere, eta baita "Gasolioan" eta "Fuelean" ere,

hilabete honetan oso esportazio maila txikiak erregistratzen baitituzte. Lurralde horretan produktu ez-energetikoak % 1,4 jaitsi dira.

Gipuzkoak % 15,4 murriztu ditu bere esportazioak, “Garraio-materialak” (% 19,2 eta 35,1 milioi gutxiago) eta “Material elektrikoak” (-% 22,2 eta -64,9 milioi) behera egin dutelako, batez ere.

Arabako esportazioak % 3,8 egin du behera, eta eten egin da aurreko hileko tasa positiboa. 2020ko urrian Arabako esportazioen beherakada txiki horren zergatia (2/3 baino gehiago) “Metalen eta haien manufakturen” beherakada izan da (-% 17,3 eta 18,6 milioi gutxiago).

Urrian, bost herrialde (Alemania, Frantzia, Italia, Erresuma Batua eta Estatu Batuak) izan dira EAEko bezero nagusiak, esportazio guztien % 53,7 (1.074,8 milioi) eurenganatura. Lehenengo hirurak EB27 izenekoaren, esportatutako guztiaren % 66,1 biltzen duen erakundearen, barruan daude. Ehuneko hori % 73,0koa zatekeen une honetan desagertuta dagoen EB28an.

Hilabete honetan Euskal AEko esportazioak bildu dituzten hamabi herrialdeak kontuan hartuz gero, ikusiko dugu horietatik hirutan bakarrik eman direla urte arteko tasa positiboak: Italiak % 47,5 egin du gora, Austriak % 19,5 eta Alemaniak % 0,9 baino ez. Hilabete honetan Estatu Batuetara egindako salmentak % 41,1 jaitsi dira, eta Txinara (-% 14,2) eta Mexikora (-% 2,7) bideratutakoek ere behera egin dute.

Inportazioen erdia baino gehiago EB27tik etorri dira (% 61,8), eta % 64,0ra iritsiko ziren EB28 desagertuaren kasuan. Europako herrialde garrantzitsuenen artean, Alemaniara (% 4,7), Frantziara (% 14,1) eta Poloniara (% 48,4) egindako erosketek gora egin dute. Hala ere, behera egin dute Portugaletik (-% 1,7), Italiatik (-% 12,7) eta Belgikatik (-% 19,4) etorritakoek. Munduko gainerako herrialdeetarako, Txinan (-% 13,7) eta Estatu Batuetan (-% 32,3) jatorria duten inportazioak ere jaitsi egin dira. Mexikokoek, berriz, gora egin dute (% 15,3).

2020ko urrian komertzializatutako produktuak

Esportazioei dagozkien jardueraren adarrak (A86) aztertuz gero, ikus dezakegu hilabete honetan nabarmentzekoa dela Kokeriak eta petrolioaren fintzea izenekoak hondoratu egin dela % 86,2 jaitsi baita aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, eta esportazio-bolumena 24,5 milioi eurokoa baino ez da izan. Beheranzko joera horren barruan sartzen dira, halaber, “Produktu siderurgikoen” (-% 14,6), “Erabilera orokorreko makineriaren” (-% 10,7) eta “Motordun ibilgailuen” (-% 1,3) jarduera-adarrak. Kontrako noranzkoan, nabarmentzekoa da “Burdinazkoak ez diren metalen” igoera handia (% 74,3).

Xehetasunetara jaitsiz, egiaztatu da, 2020ko urrian, muga-zergen hamar partida nagusiek esportazioen % 42,9 bildu zutela, eta beraien baterako balioa 858,7 milioi eurokoa izan zela; era askotako igoerekin, hauek nabarmentzen dira: “Trenbideetarako edo antzekoetarako ibilgailuen zatiak” (2019ko urrian baino % 151,0 eta 33,1 milioi gehiago), “Merkantziak garraiatzeko ibilgailu automobilak” (% 42,6 eta 54,6 milioi gehiago) eta, batez ere, “Kobre findua eta kobre-aleazioak, gordinik” (% 3.581,2 eta 50,8 milioi gehiago). Guztiz kontrakoa gertatzen da “Petrolio-olio finduetan” (-% 90,5, 149,5 milioi gutxiago) eta “10 pertsona baino gutxiagoko turismoetan” (-% 22,0 eta 54,1 milioi gutxiago).

Hilabete honetan, 10 partida nagusietatik, erdiak automobilgintzaren sektorekoak dira, urte arteko % 5,4ko igoerarekin, aurreko urteko hilabete berean baino 34,2 milioi gehiago esportatzea lortu baitu.

Euskal AEko muga-zeren partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). 2020ko urria

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
Guztira	2.362.289	2.001.253	100	-15,3
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	246.327	192.231	9,6	-22,0
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	128.183	182.751	9,1	42,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	151.202	158.301	7,9	4,7
Kautzuzko pneumatiko berriak	90.653	84.127	4,2	-7,2
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	21.938	55.062	2,8	151,0
Kobre findua eta kobre-aleazioak, gordinen	1.418	52.196	2,6	3581,2
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	56.181	43.825	2,2	-22,0
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	44.834	32.188	1,6	-28,2
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	33.442	30.692	1,5	-8,2
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriaturak	25.302	27.305	1,4	7,9
Ardoa, mahats freskoarena	24.491	25.275	1,3	3,2
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafak eta tirak	27.739	22.798	1,1	-17,8
Ontziak eta paketatzeko aparatuek garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	13.343	19.802	1,0	48,4
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiatzaileak...	23.936	18.746	0,9	-21,7
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	17.356	18.639	0,9	7,4
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	22.335	18.148	0,9	-18,8
Gainerako enbriatura moldekatuak, galdaketak, burdinazkoak edo altzairuzkoak	16.591	17.448	0,9	5,2
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	27.000	17.089	0,9	-36,7
Metal arruntzeko giltzarapo, sarriak, morroilo eta giltzak	18.960	16.580	0,8	-12,6
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	17.579	16.463	0,8	-6,3
Pizte motorren atalak txinparta pizteko edo konprimatzeko	16.498	15.948	0,8	-3,3
Petrolioaren olio finduak	165.184	15.694	0,8	-90,5
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	20.559	15.307	0,8	-25,5
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketatara euskarriak	11.031	14.406	0,7	30,6
Xafak bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicioen-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	21.334	13.935	0,7	-34,7

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Inportazioen kasuan, jardura-adarren arabera (A86), garrantzitsuenak, inportatutako kopuruari dagokionez, lehen postuan “Motordun ibilgailuen fabrikazioa” dago, % 10,4ko igoera izan baitu, 177,8 milioirekin; “Erauzketa- eta petrolio-industriak”, berriz, % 72,0ko beherakada izan dute, eta “Erabilera orokorreko makineriak” (-% 13,0) eta “Produktu siderurgikoak” (-% 15,9) ere joera bera erakusten dute.

Muga-zeren partidei dagokienez, pisu espezifiko handiena duenak, “Petrolio-olio gordinak edo mineral bituminosoarenak” (guztizkoaren % 7,5), % 70,1eko atzerakada izan du. Ezaugarri hori muga-zeren 25 partida nagusietatik 10ek erakusten dute, eta horien artean “Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak” (-% 84,6) nabarmenak da. “Petrolio-olio finduen” gorakada nabarmena erregistratu da, % 176,4koa, 58 milioiko igoerarekin, eta hilabete honetan gehien inportatu den laugarren produktua izan da (hirugarrena izan zen joan den hilean). Beraz, badirudi produktu horren kasuan EAEko ekoizten ez dena inportatzen dela; are gehiago zehaztuz gero, esan dezakegu, funtsean, “Sufre gutxiak gasolioak” eta “Kerosenoa/karburorreaktorea” direla.

2020KO LEHEN HAMAR HILABETEEN BALANTZEA

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 4.237 milioi euroko saldo positiboa izan du 2020ko lehen hamar hilabeteetako merkataritza metatuan

Lehen hamar hilabeteetan, EAEko esportazioek % 19,2ko beherakada izan dute, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, hau da, 4.079,9 milioi euro gutxiago. Esportazioaren zenbatekoa 17.157,8 milioi eurokoa da, hau da, 4.237,0 milioi euroko merkataritza-saldoa, 2019ko epe berean baino ia 97 milioi gutxiago. Ondorioz, estaldura-tasa % 132,8koa da, 2019koa baino ehuneko 7,2 puntu handiagoa, esportatutako milioi euroek jaitziera gordina erakusten duten arren.

Epe horretan, esportazioak 17.100 milioi eurotik gorakoak izan dira. Bizkaia nabarmendu behar da (6.383,1 milioi), ondoren Gipuzkoa (5.656,2 milioi) eta, azkenik, Araba (5.118,5 milioi). Aldi hori 2019rako metatutakoarekin alderatzen badugu, nabarmen egin du behera hiru lurralde historikoetan: Bizkaian -% 21,0 (1.699,4 milioi gutxiago), Gipuzkoan -% 20,4 (1.448,6 milioi) eta Araban -% 15,4 (-931,9 milioi gutxiago).

2020ko lehen hamar hilabete horietako rankingaren arabera, Alemania da Euskal AEko ondasunak jaso dituen herrialde nagusia: % 17,7 (3.033,6 milioi). Alemaniaren atzetik Frantzia (% 15,5 eta 2.666,4 milioi), Estatu Batuak (% 6,5 eta 1.115,0 milioi) eta Erresuma Batua (% 6,4 eta 1.103,9 milioi) daude. Horrela, lau herrialdeen artean biltzen da aldi horretako Euskal AEko esportazioen ia erdia (% 46,1).

EAE osorako inportazioen kopuru metatua, aztertutako aldian, 12.920,8 milioi euro ingurukoa da. Kopuru hori urte baten eta besteen artean alderatuz gero, ikusten da aurreko urteko epe berean erregistratutakoa baino ia 3.983 milioi gutxiagokoa dela.

2020ko lehen hamar hilabeteetan gehien saldutako hamar produktuek (muga-zergen partidak) 6.842,4 milioiko zenbatekoa dute, guztizkoaren % 39,9. Horietatik guztietatik, atzera egin ez duen bakarra dago "Trenbideetarako edo antzekoetarako ibilgailuen zatiak", % 93,7ko hazkundearekin eta aurreko urteko aldi berean baino 164,8 milioi gehiagorekin. Gainerako partidak 2019ko epe berean esportatutakoaren azpitik daude. Aipatutako jaitziera gehienak 100 milioi eurotik gorakoak izan dira, eta horietako lauk 349 milioitik gorako beherakadak izan dituzte; hiru automobilgintza sektoreko partidekin erlazionatuta daude. Horrela, "10 pertsona baino gutxiagoko automobilak" % 21,8 jaitsi dira (423,4 milioi gutxiago), "Ibilgailuen zatiak eta osagarriak" % 23,3 jaitsi dira (349,5 milioi gutxiago) eta "Trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako automotorrak" % 68,1 jaitsi dira (-602,4 milioi). "Petrolio-olio finduak" ere nabarmen jaitsi dira (-% 44,2 eta 538,0 milioi gutxiago).

Euskal AEko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). 2020ko urtarrila-urria metatua

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
Guztira	21.237.709	17.157.778	100	-19,2
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	1.940.117	1.516.728	8,8	-21,8
Automobilentzako zati eta osagarriak	1.498.804	1.149.281	6,7	-23,3
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	1.199.324	1.119.094	6,5	-6,7
Kautxuzko pneumatiko berriak	830.923	760.811	4,4	-8,4
Petrolioaren olio finduak	1.217.478	679.451	4,0	-44,2
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	428.496	397.143	2,3	-7,3
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	175.894	340.672	2,0	93,7
Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdina edo altzairuzkoak	388.143	314.155	1,8	-19,1
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	401.747	282.864	1,6	-29,6
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako	884.663	282.233	1,6	-68,1
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	333.051	223.713	1,3	-32,8
Burdina edo altzairuzko gainerako enbaturak	249.423	216.933	1,3	-13,0
Eskuzko erremintetarako tresna trukagarriak edo makina-erremintetarako	259.458	214.284	1,2	-17,4
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...ores,...	193.180	177.165	1,0	-8,3
Ardoa, mahats freskoarena	161.280	163.150	1,0	1,2
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	193.533	158.119	0,9	-18,3
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	187.113	151.955	0,9	-18,8
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	121.178	151.476	0,9	25,0
Metal arrunteezko giltzarriak, sarriak, morroilo eta giltzak	160.417	145.769	0,8	-9,1
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	189.132	139.963	0,8	-26,0
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	159.401	139.107	0,8	-12,7
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	154.405	135.121	0,8	-12,5
Ontziak eta paketatze aparatuek garbitzeko, betetzeko, itxeko, etiketatze makinak	131.893	131.111	0,8	-0,6
Gainerako enbatura moldekatuak, galdaketak, burdinazkoak edo altzairuzkoak	152.893	129.482	0,8	-15,3
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoak kableak	142.939	127.626	0,7	-10,7

(p)Behinbehineko datuak


Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Analisiaren fokua 25 produktu nagusietara zabaltzen badugu (guztizkoaren % 53,9, 9.247,4 milioi euro esportatuta), ikus dezakegu beste bik baino ez dituztela hazkundeak izan 2019arekin alderatuta, “Mahats freskoen ardoa” (% 1,2 eta 1,9 milioi gehiago) eta “Findu gabeko kobrea, fintze elektrolitikorako kobrezko anodoak” (% 25,0 eta 30,3).

Euskal AE osorako inportazioen kopuru metatua, denbora-tarte horretan, 12.920,8 milioi euro ingurukoa da. Kopuru hori urteen artean alderatuta, ikusten da 2019ko epe berean erregistratutakoa baino ia 3.983 milioi euro txikiagoa dela. % 23,6ko beherakada hori, 6.997,8 milioi euroko inportazio metatuak dituen Bizkaiko lurraldean aldi horretan % 28,9ko beherapena gertatu delako, eta aurreko urteko aldi berean baino 2.842,9 milioi gutxiago inportatu direlako, etorri da neurri handian. Gipuzkoako inportazioek ere behera egin dute (-% 18,3 eta 658,0 milioi gutxiago), eta baita Arabakoek ere (-% 13,9 eta 482,1 milioi gutxiago); bi lurralde horietan inportatutakoaren balioa 2.943,3 eta 2.979,7 milioi eurokoa da, hurrenez hurren.

“Produktu energetikoen” inportazioa % 46,5 jaitsi da, eta “Produktu ez-energetikoena”, berriz, % 15,1.

2020. urtean erregistratutakoari dagokionez, Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 4.237,0 milioi euroko saldo positiboa izan du. Aurreko urteko denbora-tarte berean erregistratutakoa baino ia 97 milioi euro txikiagoa bada ere, % 125,6tik % 132,8ra igaro den aldeko estaldura-tasa erakusten du.



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

KANPO-MERKATARITZA ERRESUMA BATUAREKIN

Euskal AEko eta Erresuma Batuko ondasunen kanpo-merkataritzak 701,3 milioi euroko saldo positiboa izan du 2020ko lehen hamar hilabeteetan.

2020ko lehen hamar hilabeteetara dagokienez, Erresuma Batua egindako esportazioek garrantzitsuak izaten jarraitzen dute (1.103,9 milioi), guztizkoaren % 6,4 baitira. Kopuru hori azken 28 urteetako batez bestekotik (% 7,0) oso hurbil dago. Ehuneko horren ondorioz, herrialdeen rankingeko laugarren postuan dago, Alemaniaren (% 17,7), Frantziaren (% 15,5) eta Estatu Batuen (% 6,5) atzetik; ranking esportatzaile horretan beti egon da hirugarren, laugarren edo bosgarren postuan.

Denbora-tarte horretan bertan, Erresuma Batuko inportazioak (402,6 milioi) guztizkoaren % 3,1 izan dira. Ehuneko hori, 1990ean hasi zen, eta % 8,5ekoa den serie historikoaren batez bestekoaren azpitik dago. Epealdi batzuetan (1994-2003) % 10,6 eta % 12,2 artean egon da. Gaur egun, Erresuma Batuko inportazioen pisua kontuan izanda, aztertutako aldiaren herrialde hori ranking inportatzailearen bederatzigarren postuan dago, herrialde hauen atzetik: Alemania (% 16,0), Frantzia (% 9,8), Txina (% 8,0), Italia (% 5,0), Mexiko (% 4,2), Errusia (% 4,0), Irlanda (% 4,0) eta Estatu Batuak (% 3,8). 1994an eta 1995ean bigarren postuan egon zen. Esportatzaile/inportatzaile fluxu bikoitz horren ondorioz, 1990etik 2004ra arteko saldo komertzialak negatiboak izan ziren. Urte horretan saldoa positiboa bilakatu zen, eta gaur egunera arte eutsi dio joera horri, 2014ko eta 2015eko salbuespenetan izan ezik. 2020an, ondasunen merkataritza-balantzak 701,3 milioi euroko superabita eman du, eta, ondorioz, estaldura-tasa (100 baino handiagoa bada, inportatzen duguna baino gehiago esportatzen dugu) % 274,2an dago, Alemaniaren (% 147,1), Frantziaren (% 211,5) edo Estatu Batuen (% 226,6) gainetik.

Euskal AEtik Erresuma Batua esportatutako partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). 2020ko urtarrila-urria metatua

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
Guztira	1.969.752	1.103.896	100	-44,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	160.118	112.807	10,2	-29,5
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsaetarako	519.746	95.190	8,6	-81,7
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	42.802	81.500	7,4	90,4
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	140.272	68.058	6,2	-51,5
Kautxuzko pneumatiko berriak	81.063	65.809	6,0	-18,8
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	137.728	58.350	5,3	-57,6
10 pertsona baino gutxiagoko turismoko	124.678	50.791	4,6	-59,3
Ardoa, mahats freskoarena	30.002	34.609	3,1	15,4
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	32.181	25.507	2,3	-20,7
Pizte motorren atalak txinparta pizteko edo konprimatzeko	34.205	21.707	2,0	-36,5
Turborreaktoreak, turboimpulsaetzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	28.975	21.158	1,9	-27,0
Petrolioaren olio finduak	19.539	16.836	1,5	-13,8
Ekilore, karkamo edo kotoi olio, baita finduta ere, baina kimikoki aldatu gabe	11.083	15.831	1,4	42,8
Aireontzien parteak	9.354	15.794	1,4	68,8
Xafilen bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	2.475	14.528	1,3	487,1
Txokolatea eta kakaoa duten gainerako elikagai-prestakinak	14.442	13.939	1,3	-3,5
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	26.732	13.736	1,2	-48,6
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	21.816	12.600	1,1	-42,2
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	22.858	12.359	1,1	-45,9
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	311	11.800	1,1	3688,1
Garabiak eta igogailuak, zubiak eta orga jasotzaileak	7.850	11.194	1,0	42,6
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...ores,...	16.291	11.173	1,0	-31,4
Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeko, burdina edo altzairuzkoak	15.725	10.455	0,9	-33,5
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	11.570	9.983	0,9	-13,7
Metal arruntzeko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	14.395	9.959	0,9	-30,8

(p) Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Erresuma Batuekin merkaturatzen ditugun produktuen analisia egiten badugu, esportazioei eta 2020ko lehen hamar hilabeteetara dagokienez, adierazi behar dugu esportatutako produktu nagusia (4 digituko muga-zergen partida) "Ibilgailu automobilen zatiena eta osagarriena" izan dela (112,8 milioi), guztizkoaren % 10,2arekin, eta, ondoren, ordena honetan, "Trenbideetarako automotorrak eta tranbia autopropulsaetarako" (81,5 milioi eta % 7,4), "Trenbideetarako edo antzekoetarako ibilgailuen parteak" (81,5 milioi eta % 7,4), "Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak"

(68,1 milioi eta % 6,2), “Kautxuzko pneumatiko berriak” (65,8 milioi eta % 6,0), “Merkantziak garraiatzeko ibilgailu automobilak” (58,4 milioi eta % 5,3), “10 pertsona baino gutxiagoko automobilak” (50,8 milioi eta % 4,6). Ikus daitekeenez, lehen zazpi muga-zergen partidetatik sei “Automobilgintzarekin” erlazionatuta daude, eta lehen 25 produktuen artean beste bi daude: “Aireontzien parteak” (15,8 milioi eta % 1,4) eta “Gidaria barne, hamar pertsona edo gehiago garraiatzeko ibilgailu automobilak” (13,7 milioi eta % 1,2); talde horrek 504,5 milioi bildu ditu, 2020ko urtarrila eta urria bitartean esportatutako guztizkoaren % 45,7, hain zuzen ere. 2019. urte osoan talde horretan zehar 1.338,3 milioi esportatu ziren, guztizkoaren % 57,6. Esportazio nagusien artean azpimarratu behar diren beste muga-zerga talde/sekzio batzuk “Metal arruntak eta haien manufakturak” eta “Makina eta artefaktu mekanikoak” dira.

Erresuma Batutik Euskal AEra inportatutako muga-zergen partida nagusiak. Mila eurotan (behin-behinekoa). 2020ko urtarrila-urria bitarteko metatua. 2020

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
Guztira	518.890	402.609	100	-22,4
Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	72.424	88.743	22,0	22,5
Burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko txatarra	41.140	22.283	5,5	-45,8
Beroan ijeztutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalerakoak	22.548	18.179	4,5	-19,4
Arrain fresko edo hoztua	19.089	15.028	3,7	-21,3
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	15.020	13.845	3,4	-7,8
Petrolioaren olio finduak	31.788	13.104	3,3	-58,8
Turboreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	16.975	12.707	3,2	-25,1
Altzairu herdoilgaitza, lingotetan edo bestelako forma primarioekin	20.882	10.083	2,5	-51,7
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak zetonetakoak) eta horien deribatuak	4.248	9.100	2,3	114,2
Transformadore elektrikoak, bihurtgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	2.049	8.745	2,2	326,8
Zuntz artifizial etenak, kardatu, orraztu edo harirako prestatu gabe (rayon biskosakoak edo beste batzuk)	6.079	7.671	1,9	26,2
Aleatutako gainerako altzairuen produktu plano ijeztuak, 600 mm-tik gorako zabalerakoak	6.796	7.427	1,8	9,3
Telefonoak eta ahotsa, irudia edo beste datu batzuk transmititzeko edo hartzeko gainerako gailuak	9.422	5.669	1,4	-39,8
Landu gabeko aluminioa	4.910	5.253	1,3	7,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	14.659	5.106	1,3	-65,2
Ferroaleazioak	8.299	5.012	1,2	-39,6
Koloratzailak edo pigmentu inorganiko edo mineralak, b.a.s.g.; titaniozko dioxido-prestakinak, kromo-konposatuak...	11.688	4.587	1,1	-60,8
Krustazeoak	4.599	4.360	1,1	-5,2
Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko alanbre-burdina	5.758	4.097	1,0	-28,8
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	4.760	3.909	1,0	-17,9
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	5.942	3.623	0,9	-39,0
Metala lantzeko mekanizazio-zentroak	7.112	3.578	0,9	-49,7
Makina erremintatutako parteak eta osagarriak	5.082	3.295	0,8	-35,2
Eskuzko erremintatutako tresna trukagarriak edo makina-erremintatutako	2.169	2.940	0,7	35,5
Ortopedia-gailuak eta -aparatuek	3.165	2.756	0,7	-12,9

(p)Behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Erresuma Batutik inportatutako produktu nagusiak, hauek izan dira, beraien garrantziaren ordenan: “Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak” (88,7 milioi eta guztizkoaren % 22,0), “Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko txatarra” (22,3 milioi eta % 5,5), “Berotan ijeztutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalerakoak” (18,2 milioi eta % 4,5), “Arrain freskoa edo izoztua” (15,0 milioi eta % 3,7), “Trenbideetarako edo antzekoetarako ibilgailu-zatiak” (13,8 milioi eta % 3,4) eta “Petrolio-olio finduak” (13,1 milioi eta % 3,3). Produktu horiek ere garrantzitsuenak izan dira azken urteetan (2000tik 2018ra), lehen postuetan txandakatuz, 2011., 2012. eta 2013. urteetan izan ezik, horietan ez baitzen petrolio-oliorik inportatu. Beste bi produktu ere aipatu behar ditugu, 2004az geroztik ibilbide irregularragoa izan duten arren, beti lehen hamar postuetan egon direlako: “Turboerreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne” eta “Altzairu herdoilgaitza lingoteetan edo lehen mailako gainerako formetan”. Inportazioen analisiaren ondorio gisa, esan dezakegu inportazioen % 52,6 hamar produktutan kontzentratu dela, aztertutako aldian “Erregai mineralak, olioak eta haien destilazioko produktuak” izenekoaren kapituluak inportatutako produktu guztien laurdena izan dela (102,4 milioi eta % 25,4), eta “Galdaketa, burdina eta altzairua” (78,1 milioi eta % 19,4) izenekoarekin batera, Erresuma Batutik datozen Euskal AEko inportazioen norantza orientatzen dutela.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62